



**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA**ZURRIOLA HIRIBIDEA 32**

Egilea eta data: Florencio Mocoeroa, 1935

**Deskribapena**

Etxadi erremate gisa kantoi bikoitzeko eraikina; behe oina eta sei goi oin ditu, azkena atzeraemangunean. Etxeak bost atari ditu, eta atari bakoitzean oin bakoitzeko bi etxebizitza. Kasu gehienetan etxebizitza horiek alderik aldekoak dira Galtzada Nagusia ematen duen atarian izan ezik. Honek hondo txikiagoa du. Eraikitako azalerak oso aprobetxatua dagoen orubearen zati handi bat okupatzen du; ondorioz, etxadi patioa txikia da. Patio nagusi honetaz gain, banaketen barrualdean kokaturiko erdiko geletarako beste zortzi patio txiki daude. Etxe honen ezaugarri adierazgarria da, perimetro osoan agertzen den etengabeko lerro horizontal edo inposten multzoa. Konposizio gai bera hiru fatxadetan agertzen da. Konposizio hori balkoien eta irteten diren gelen artean dauden erritmo diferentziak ezkutatzeko eta itxura bateratua emateko baliabide bat da. Hornitegia 1935. urtean bertan egindako proiektu aldaketaren bidez baimendu zen. Markesina, berriz, 1951ko proiektu batean definitu zen.

**Babes erregimena**

## 1.- Babes erregimen orokorra:

Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

## 2.- Berariazko babes erregimena:

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: arotzeria.

B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: ez.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Zurriola 34rekin, Galtzada Nagusia 3rekin, eta Kolon pasealekua 31 eta 33rekin batera osatzen duen esku hartze unitatean sartzearen ondoriozkoak.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.